

## BIHOTZEZ AGUR

**Bihotzez agur, ongi etorri!  
Gabon, Jainkoak diela!  
Legearekin kunpli dezagun  
Santa Ageda bezpera.**

Gaurko egunez, kalerik kale,  
irten gerade kantari.  
Lehen agur egin nahi diegu  
Etxe hontako denori.

### **Bihotzez agur, ongi etorri!**

Santa Agedan ta Ikasbiden  
bildu gerade gaurkoan,  
euskal giroa jartzeko asmoz  
Amara Berri auzoan.

### **Bihotzez agur, ongi etorri!**

Usadioa legez jarraituz,  
nola ez eman gaur buelta!  
Kriseilu eta makilak hartuz,  
guretzat plan txarrik ezta.

## BEGI URDIN BAT

**Hitzak: Biktoriano Iraola  
Musika: Raimundo Sarriegi**

Famaren hotsak goititutzen du  
merezi duben erriya.  
Zeru txiki bat dirudiyena  
hala da gustagarriya!  
Lehengoko zaharra, |  
txukun txukuna, |  
eder, alaya, berriya. |  
Ez zaigu penik | bi aldiz  
behin ere juango |  
lehenago ez etorriya. |

Begi urdin bat begira dago  
algaraz leihyo batetik;  
beste beltxaran, tentatzailia,  
txeletan, berriz, bestetik.  
Zoramen habek |  
maite ditugu, |  
bihyotzen erdi-erditik. | bi aldiz  
Ez gera juango, |  
hoyek lajata |  
Gehyago Donostiyatik. |


(Jatorrizko ahozkera errespetatu da  
egungo ortografia ahal den neurrian  
egokituz)

## SANTA AGEDA BEZPERA - 2022 -



Otsailaren 4an, ostirala, 19.00etan,

Amara Berriko IKASBIDE kultur elkartean



## ZORION ETXE HONTAKO DENOI

Zorion etxe hontako denoi  
agur egitera gatoz  
aterik ate ohitura zaharra  
aurten berritzeko asmoz.  
Ez gaude oso aberats diruz,  
ezta ere oinetakoz,  
baina ezta ez sano gabiltza  
ta kanta nahi degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu  
Euskal Herriko eguna,  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua deguna  
Santa maitea gaur hartu degu  
gure bideko laguna;  
haren laguntzaz bete gentzake  
egun hontako jarduna

Aspaldi hontan ura garesti  
dabil esne ta ardotan.  
Mahats gutxi izan arren, ardorik  
ezta alta tabernetan.  
Jesusek ura ardotu bazun  
Kanaango eztaietan,  
orain ikasle azkarrak sortu  
zaizkio ardangeletan.

Zorion etxe hontako denoi,  
Aldarrikatzera gatoz,  
Kalerik-kale pentsio duinak  
Aurten berritzeko asmoz.  
Ez gaude oso aberats diruz;  
bai, ordea, politikoz...  
eta ezta ez sano gabiltza,  
ta kanta nahi degu gogoz!

Donostiako neska-mutilak  
Soldata mila ta berrehun,  
Santa Ageda bezpera hontan:  
Pentsiodunak! Denok lagun!  
Gure ahotsak denak batera,  
makilekin txukun-txukun.  
Behintzat mila ta larogei euro,  
Denok oihuka dezagun!

Pandemia ditzoso honekin  
mugatu zaigu jarduna  
besteak beste kantuz aitzeko,  
hain gustukoa deguna!  
Ama Lurra esnatuko degu  
eman kolpea, laguna!  
Elizak egokitu aurretik  
ohiturazkoa genua!

## AGUR, ESKERRIK ASKO!

Agur, eskerrik asko!  
Agur, etxeakoak!  
Hurrengo urtera arte...  
Hemendik bagoaz,  
Hemendik bagoaz!

## SANTA (Y)AGEDA

Santa (Y)ageda, (Y)ageda!  
Bihar da Santa (Y)ageda!  
Bihar da Santa (Y)ageda eta  
Gaur haren bezpera gaua.  
Bere baimena eskatzen  
diot etxeako jaunari;  
Santa (Y)agedaren ontasunak  
erakustera noa ni.

-----

Zapata txuri paperez,  
euriak jota bat ere ez,  
herrian damak badira baina,  
zeu bezelakorikan ez.  
Oles ta oles etxekotxuak,  
jotzen ditut nik gaur ateak...  
jotzen ditut nik ateak eta...  
kotsola bitez jenteak!